



### **Kondenatu baten azken eguna**

Jatorrizko izenburua: *Le dernier jour d'un condamné*

Egilea: Victor Hugo

Itzultzailea: Juan Mari Agirreurreta

Argitaratze urtea: 2010

Argitaletxea: Elkar

### MIKEL GARMENDIA

Propaganda, zabalkundea, horra zer merezi duen, nire ustez, liburu honek. Nola edukiagatik hala formagatik ere. Edukiagatik, nekez aurkituko baitugu hiltzera kondenatutako gizaki baten larruan jartzeko eta kondenatuak sentitzen dituenak ia gure egiterainoko bide eragingarriagorik. Eta ez soilik sufrimenduzko sentipen fisikoak, nolabait esatearren, baizik baita ere burubide mailakoak, hala nola ezin ulertzea nola eragiten digun poza edo axolarik eza besteren sufrimenduak: “Horra zer egingo duten zure aitarekin gorrotatzen ez nauten gizonok, urrikaltzen diren eta salba nazaketen gizonok: hil egingo naute. Ulertzen al duzu hori, Marie?”

Ulertezintasun hori dugu, esango nuke nik Victor Hugok berak deskribapen edo aipamen hutsean uzten duen edo, nahiago badugu, agerian utzi besterik egiten ez duen funtsezko gaia. Zeren heriotza-zigorren aurka argudiatzea —eta hala egin zuen Victor Hugok berak kontakizun honetatik landa ere— gauza bat da, baina nola esplikatu besteren minarekin poza hartzea? Ez ote genuke hortik hasi beharko? Izan ere, egia izanik gaur egun kontzientzia hartuagoak gaudela Victor Hugoren garaian baino edota herrialde “zibilizatu” gehienetan ez dagoela indarrean heriotza-zigorra (pentsa hala ere: 1793-1794 Izuaren Aldian 40.000 herritar hil zituzten Frantzia heriotza-zigorra ezarrita), hori guztia egia izanik ere, nekez esan dezakegu funtsezko gai makurra desagerrarazi dugunik.

Eta formari dagokionez, kondenatua bera dugu narratzailea, lehen pertsonan mintzo zaiguna lehen aldi hurbiletik orainaldirako bidaian, “nintzen”-etik “ari naiz”-era. Victor Hugok bikain jorratutako aspektu-bilakaera eta itutzailak ere euskarara ongi asko ekarri duena. Horrek eta elkarrizketek egiten dute bizi-bizia irakurketa, egoeren deskribapen zehatzak lagun (bereziki azpimarratuko nuke behin eta berriro deskribatzen dituela heriotzara kondenatuak ikustera joandako jendeen aztoramenezko egoerak). Esan bezala, itzulpen txukun eta lortua, izatekotan itzultzailearen oin-oharren bat gehitzea eskatuko lukeena: hitz batzuen esanahia (tafeta...) edota egoera batzuen zergatia (parrizidak agur egiteko ukabila ez jasotzearena, kasu) azaltzeko. Horiek ez dira, hala ere, inolaz ere oztopo irakurketa barne-eragingarri eta bizia egiteko.

Horra zergatik desio diodan zabalkundea liburu honi gizarte-maila guztietan, zeren ez baitut ezagutzen, irudigintza era zinemagintza aparte utzita, berebiziko garantzia duen gai honetaz ausnarrarazteko akuilu hoberik. Ondo merezia luke liburuxka honek hedapen zabal bat.